

UDABERRIA, OSPATZEKO SASOIA

Udaberrian sagarrondoak loratzen hasten dira eta sagastiak zuriz janzen dira. Sagastien loraldiarekin batera, hainbat ekitaldi eta jarduera antolatuko dira zenbait herritan. Besteak beste, Usurbilgo 38. Sagardo Eguna.



Sagarrondo batzuk, loretan. ASIER AZPILIKUETA

Giro ederra egongo da egun osoan Usurbilen maiatzaren 19an, Sagardo Egunean. Sagardoaz gozatze-ko aukera zabala egongo da. Izan ere, baserriko sagardoa, Euskal Sagardoa sor-marka duen sagardoa eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko ekoizleen sagardoa dastatu ahal izango dira. Urtero bezala, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak elkartea izan da antolatzailea.

Usurbilen bertan, Sagarrondotik Sagardora ikastaro zikloa egiten ari dira Usurbilgo Potxoene-

an. Alkartasuna Usurbilgo Baserriarren Kooperatibak antolatatu du, Sagardoaren Unibertsitatearen, Sagarki eta Bizi Sagardoa elkartearen eta Usurbilgo Udalaren laguntzaz. Maiatzaren 18an *Ilargia eta egutegi biodinamikoa* saioa egingo du Xabier Akizuk, ekainaren 1ean *Sagastien udako kimaketa, gatzak eta izurriteak* gaia landuko du Aitor Etxeandiak, uztailaren 13an *Fruitu arbolén udako edo begiko txertaketa* Josu Osak, eta irailaren 7an *Sagarraren heldutasun analisiak. Etxean sagardoa egiteko hastapenak* saioa egingo dute Aitor Etxeandiak eta Egoitz Zapiainek.

Saio batean parte hartu nahi izanez gero, Alkartasuna kooperatibarekin harremanetan jarri behar da, telefonoz (943-36 11 14) edo posta elektronikoz (alkartasuna@usurbil.com).

EKITALDI UGARI

Astigarragako Sagardoetxea museoan ere ospatzen ari dira sagarrondoaren loraldia. Horrela, maiatzaren 18rako *Udaberri*

giroan jaialdia antolatu da familia osoarentzat. Sagardoetxearen sagastian, antzerki, dantza eta musika emanaldiak egingo dira. Halaber, loreekin egindako bitxigintza tailerra egingo da Idoia Lizeagarekin, baratzeko lanei buruzko saio bat Astigarragako Baratza Elkartearekin eta piknika sagastian bertan.

Parte hartu nahi duten familiek izena eman dezakete telefo-

noz (943-55 05 75) edo prentzearen bitartez (info@sagardorraldea.eus).

Euskal Herriko beste herritan ere sagardoa prentzearen bitartez izango den ekitaldi batzuetan izango dira datozen asteetan beste, Sagardo Egunak antolatutako dira Irunen (maiatzak 18), Donostian (maiatzak 19), Morlans auzoan (maiatzak 19), Getarian (maiatzak 19),

Bertakoa, betikoa, gurea.



www.petritegi.eus



#sagarkultura

KALITATE GUZTI-GUZTIA
daukagu zuretzat

Zelaia
Sagardo naturala
Sida naturala

MARTINDEGI 29
20120 HERNANI GIPUZKOA
943 555 851
zelaia@zelaia.es

USURBILGO SAGARDO EGUNA

MAIATZAK 19, IGANDEA
 Sagardo Egunaren hasierak. Baserriko sagardoa, sagardoa sor-marka eta Gipuzkoako Elkarteko ekoizleek dastatzeko aukeraz gain, pintxo aukera za-
 Egunarekin Sagardoaren dastaketaren
 Elektro-Patxaranga musika kaleetan zehar.



Sagardo ederra dastatu ahal izango da Usurbilgo Sagardo Egunean, maiatzaren 19an. NOAUA!

kal Sagardoa sor-markako sagardorekin, maiatzaren 18an.

Azkenik, hauek dira sagardoaren inguruan antolatuko diren beste jaialdi, dastatze eta azoka batzuk: Euskal Jaia Getarian




(maiatzak 25), Bisigu & Sagardofest jaia Tolosan (ekainak 1 eta 2), sagardo dastatzeak Azkoitian (ekainak 9), Elgoibarren (abuztuak 31) eta Oñatin (urriak 5), BasHerri azoka Lazkaon (irailak

22), Sagar Uzta Astigarragan (irailak 29), Debagoieneko Sagar Eguna Arrasaten (urriak 19), Ibarbi sagarraren azoka Errezilen (abenduak 1) eta Sagardo Apurua Donostian (abenduak 6, 7 eta 8).

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hauek:
www.usurbil.eus
www.sagardoarenlurraldea.eus
www.sagardoa.eus

ISASTEgi
 sagardotegia

Aldaba Txiki Auzoa
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Tel: 943 65 29 64 Fax: 943 65 56 32
isastegi@isastegi.com
www.isastegi.com



LIZEAGA
 SAGARDOTEGIA

SAGARDO
 NATURALA

www.lizeaga.eus



euskal
 sagardoa